

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5315

145/2018 EBAZPENA, urriaren 8koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren artean sinatutako lankidetzaz hitzarmena argitaratzea, unibertsitateko egresatuak lan-merkatuan sartzeak dituen ezaugarriei buruzko informazio-sistema bat garatzeko eta haiei begirako hezkuntza- eta enplegu-politikak garatzeko dena.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hitzarmen hori sinatu duenez gero, eman behar zaion publikotasuna emateko, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren artean sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren testua, unibertsitateko egresatuak lan-merkatuan sartzeak dituen ezaugarriei buruzko informazio-sistema bat garatzeko eta haiei begirako hezkuntza- eta enplegu-politikak garatzeko dena. Honen eranskinean dago jasota testu hori.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 8a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JUAN ANTONIO ARIETA-ARAUNABEÑA IBARZABAL.

2018ko urriaren 30a, asteartea

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO
HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN URRIAREN 8KO 145/2018 EBAZPENARENA

LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN ETA
LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOAREN ARTEKOA, UNIBERTSITATEKO EGRESATUAK
LAN-MERKATUAN SARTZEAK DITUEN EZAUGARRIEI BURUZKO INFORMAZIO-SISTEMA
BAT GARATZEKO ETA HAIEI BEGIRAKO HEZKUNTZA- ETA ENPLEGU-POLITIKAK
GARATZEKO DENA

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 19a.

HONAKO HAUEK ELKARTU DIRA:

Batetik, Nekane Balluerka Lasa, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea, haren izenean eta hura ordezkatzuz, hala izendatu baitzuten Lehendakariaren 250/2016 Dekretuaren bidez (2017ko urtarrilaren 11ko EHAAn argitaratua, 7. zk.).

Aurrerantzean, EHU.

Eta bestetik, Beatriz Artolazabal Albeniz, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren lehendakari gisa, haren izenean eta hura ordezkatzuz, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legearen 9 c) artikuluan xedatutakoaren arabera esleitutako eskumenak baliatuz.

Aurrerantzean, Lanbide.

Bi aldeek aitortu diote elkarri hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun juridikoa, eta, hala

HAU AZALTZEN DUTE:

Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) sentsibilizatuta eta konprometituta dago goi-mailako irakaskuntzako zerbitzu publikoa ematen duen jardun-inguruneko premia sozial, ekonomiko eta kulturei erantzuteko betebeharrarekin.

EHU funtsezko bazkidea da Europako Estrategia (EE2020) abian jartzeko, xedetzat hartuta ezagutza oinarri duen ekonomia jasangarria eta arduratsua sustatzea eta finkatzea, gizartearen prestakuntza hobetzea eta lan-merkatuan gertatzen diren aldaketa bizkorretara egokitu dadin bultzatzea.

Globalizazio-prozesuak aldaketa sakonak eragin ditu eta eragiten ditu alor guztietan, hala nola joera ekonomikoetan, lan-prozesuetan, enpleguen edukian, lanbide-gaitasunetan, enpresa-kudeaketako ereduetan, informazioko eta komunikazioko teknologien inpaktuan, eta joera, sozial, politiko, teknologiko eta ingurumenekoetan. Horrek guztiak beharrezkoa egiten du errealitatea zein den ezagutzea eta errealitate horri aurrea hartzea, eta, horrezaz gain, erakundeen arteko lankidetzara, aldaketa horien garrantziarekin bat datorren erantzuna emateko.

EHUren helburuetako bat da kalitatezko goi-mailako irakaskuntza eskaintzea, ikasleen prestakuntza osorako eta lanerako beharko dituzten gaitasunak ziurtatzeko, eta, horretarako, hezkuntza-baldintzak sustatuko ditu, bai eta ikasleen gizarteratzea eta lan-alorrean txertatzea bultzatzeko eskaintza osagarriak ere.

Unibertsitateko agintariek gizarte-errealitateari buruzko informazio egokia behar dute, hain zuzen, unibertsitateak parte hartzen duen eta eragina duen gizarteari buruzkoa, horren arabera irakaskuntza antolatzeko, curriculumeko edukiak berritzeko, titulazio-mapak aldatzeko, eta, halaber, egresatuei informazio-zerbitzuak eskaintzeko lanari eta lan-merkatuan txertatzeari buruz.

Bestalde, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua urriaren 13ko 3/2011 Legearen bidez sortu zen, eta izaera administratiboa duen erakunde autonomo bat da, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari atxikia. Nortasun juridiko propioa du, bai eta jarduteko gaitasun osoa ere, bere helburuak betetzeko. Besteak beste, funtzionatzen du lan-bitartekotza kudeatzea eta enplegu-politika aktiboen betearazpena. Horrenbestez, erakunde autonomo horrek lan-merkatuko informazioko politika aktiboaren edukiak eratzen laguntzen du, estatistika-jardueren bidez, bere zein beste batzuen estatistiken bidez, eta administrazio-erregistroen bidez, guzti-guztiak lan-alorrearekin lotutakoak. Horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Kabinete Tekniko bat du, analisi eta azterketak, informazioa, berrikuntza eta horien antzeko eginkizunak garatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatuak onartzen dituen maiatzaren 22koa 82/2012 Dekretuaren 11.2.a) artikuluan xedatutakoa betez.

Testuinguru hori izanik, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua bat datoz asmo honetan: hezkuntza-sistematik lan-merkatutarako trantsizioa behatzeko tresna bat garatzea. Zehazki, biek ala biek interes handia dute informazio espezializatua lortzeko tresnak eta jarduerak elkarrekin kudeatzeko eta elikatzeke, eta, horretarako, EHUko egresatuen laneratzeari buruzko estatistika-jarduerak egiteko.

Estatistika-jarduera horiek informazioa lortzeko tresnatzat hartu behar dira, informazio horrek lagunduko baitigu hezkuntza-eskaintzaren eta -kudeaketaren alorreko erabakiak hartzen; horrez gain, enplegu-politikako jarduketak sustatzera bideratutako tresnatzat ere hartu behar dira.

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da informazio-sistema bat ezartzea, inkestak oinarri hartuta horretarako, EHUko egresatuak lan-munduan txertatzeak eta lan-merkatura igarotzeak dituen ezaugarriak identifikatu ahal izateko eta haien kualifikaziorako eta enplegarritasunerako hezkuntza- zein enplegu-politikak garatu ahal izateko.

Bigarrena.– Egin beharreko jarduerak.

Hitzarmen honen esparruan, honako jarduera hauek garatuko dira:

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak urtero egingo die laneratzeari buruzko inkesta bat EUHn gradu eta graduondoko titulua eskuratu dutenei; lehenbiziko inkesta ikasketak 2015ean amaitu dituztenei egingo die.

Bi inkesta-modalitate aurreikusten dira, bata oinarrizkoa eta bestea zabalagoa; inkestak bi urtean behin txandatuko dira, eta oinarrizko inkesta izango da lehenbizikoa. Oinarrizko inkestan galderak, funtsean, honako alderdi hauei buruzkoak dira: lan-merkatutazaren nondik norakoak, karrera amaitu osteko jarduera den aldetik; inkesta betetzeko uneko lan-egoera; eta titulua lortuz geroztik egindako prestakuntza. Inkesta zabalean, adierazi berri diren alderdiei buruzko galderez gain, honako hauei buruzkoak egingo zaizkie: unibertsitatearen balorazioa; unibertsitatean eskuratutako kompetentzien balorazioa, eta kompetentzia horien baliagarritasuna lanposturako.

– Norainokoa.

Errolda-izaerako eragiketa bat da. Promozio bakoitzeko ikasleen kopuruaren arabera izango da erroldaren bolumena. Promozio bakoitzak inkesta bat egingo du, eta titulua lortu eta hiru urteren buruan beteko dute inkesta pertsona horiek.

Egresatuaren lan-jarduerarekin zerikusia duen galdera-multzo batean datza inkesta. Lanbidek zehaztuko du zer erantzun-maila behar den lortutako emaitzak esanguratsuak izan daitezen. Inkesta osatutzat emango da uneko lan-egoera gaitzat duen galderari erantzunez gero, gainerako galderei erantzun ala ez erantzun. Eta era berean, galdera horri erantzuten ez bazaio, nahiz eta gainerako guztiei erantzun, inkesta ez da osatutzat hartuko.

– Faseak eta epeak.

1.– Datuen entrega. Lanbidek, urtearen lehenbiziko hiruhilekoan, aztertu beharreko promozioeko egresatuen datuak (bai graduko titulazioa duten pertsonenak, bai «Master ofiziala» eta «Doktoretza Programa» modalitateetan katalogatutako graduondoko titulazioa dutenenak) eskatuko dizkio EHUk horretarako eskumena ematen dion pertsonari. Zehazki, datu hauek:

- Promozioa: ikasketak amaitutako urtea.
- Izen-abizenak.
- NAN, letra eta guzti.
- Jaiotza-data.
- Sexua.
- Inkestatutako pertsonaren identifikazio-zenbakia.
- Familiaren egoitzaren posta-kodea.
- Lortutako titulua (euskaraz).
- Lortutako titulua (gaztelaniaz).
- Titulazio-mota (gradua, gradu bikoitza, master ofiziala edo doktoretza-programa).
- Titulazioaren kodea.
- Titulazioaren ezagutza-arloa.
- Prestakuntza duala (bai/ez).
- Ikasketak egiten hasitako urtea.
- Ikasketak amaitutako urtea.
- Lortutako batez besteko nota.
- Ikasketak zer hizkuntzatan egin dituen.
- Ikasketak zer fakultatetan egin dituen.
- Harremanetarako telefonoa: eskukoa.
- Harremanetarako telefonoa: finkoa.

– Helbide elektronikoa.

EHUK, oro har, hilabeteko epea izango du eskaera horri erantzuteko.

Datu egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurria mugatutakoak soilik eskatutako dira, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5. artikuluan xedatutakoa betez; horrenbestez, hezkuntza-erreformaren ondorioz edo hezkuntza-eskaintza zabaltzearen ondorioz beste aldagai batzuk beharrezkotzat joz gero, eskatu egingo dira, EHUREkin adostu ondoren.

EHUK konpromisoa hartzen du ikasketak amaitutakoan ikasleek eguneratuta dituzten datuak helarazteko Lanbideri; nolahi ere, ikasleek datuak zuzentzeko eskubidea baliatuz gero, zuzendu osteko datuak helaraziko ditu.

2.– Inkestaren gauzatzea. Lanbidek egingo die inkesta egresatuei. Inkesta, ahal dela, urteko laugarren hiruhilekoan egingo da.

3.– Emaizten ustiapena. Lanbidek emaitzak ustiatuko ditu eta txostenak prestatuko ditu inkestak egin osteko urtearen lehenbiziko hiru hiruhilekoetan, erakundeak berak erabakitako formatuetan. Zehazki, honako hauek izango ditu entregagai:

- Hedatzeko txosten orokorra (gaztelaniaz eta euskaraz).
- Txosten espezifikoa, ezagutza-arloa kontuan hartua.
- Txosten espezifikoa, titulazioa kontuan hartuta.
- Bi aldeek adostutako txosten egingarri guztiak.

4.– Emaizten entrega. Lanbidek entregagai guztiak igorriko dizkio, euskarri automatizatuan, EHUK propio horretarako eskumena ematen dion pertsonari, inkestak egin osteko urtearen laugarren hiruhilekoan, non eta entrega atzeratzen ez den ezinbesteko kasua dela eta.

Lanbidek, bestalde, EHUK alde aurretik helarazitako datuak bueltatuko dizkio (datu pertsonalak eta ikaslearekin harremanetan jartzeko datuak), bai eta inkestetan jasotako erantzun jakin batzuk ere, bi aldeen artean aurretik adostutakoak, zehazki.

EHUK informazio horrezaz gain informazio gehiago behar badu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eskatuko dio, EHUK propio horretarako eskumena ematen dion pertsonaren bidez. Lanbidek, gero, eskaera baloratu eta eskatutako informazioa 15 laneguneko epean igorriko dio euskarri elektronikoa, eskaera egin dion pertsonari.

5.– Hedapena. Ezinbestekoa da egindako lanari merezi duen balioa ematea eta azterketaren emaitzak gizarteari helaraztea. Horretarako, hona hemen jarduerak:

- EHUK konpromisoa hartu du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hala eskatuta, prentsaurreko bat egiteko elkarrekin, eta, hala, datu nagusiak plazaratzeko.
- Bi aldeek konpromisoa hartu dute datuak jaso eta hilabeteren buruan ez argitaratzeko datuok, aurreko lerrokadan adierazitako kasuan izan ezik.
- Emaiztak argitara eman aurretik, lehen adierazitako hilabeteko epea amaitu aurretik edo elkarrekin prentsaurrekoa egin aurretik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak azterketaren daturik garrantzitsuenak EHUKo Gizarte Kontseiluari aurkeztuko dizkio, hark hala eskatuta.

– Txostenak jaso eta hilabeteko epea igarotakoan edo elkarrekin prentsurrekoa egin ondoren, inkestan parte hartu duten bi aldeek emaitzak plazaratu ahal izango dituzte, horretarako egokien jotako bitartekoen bidez.

Hirugarrena.– Araubide ekonomikoa.

Hitzarmen honek ez dakarkie betebeharrak ekonomikorik aldeei.

Laugarrena.– Egindako lanen titulartasuna.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egindako txostenak, hitzarmen honetako bigarren klausulan adierazitakoak, Lanbideren jabetzakoak dira. Nolanahi ere, bi aldeetako edozeinek azterketaren emaitzak argitaratu ondoren, EHUK txosten horiek ikerketak egiteko erabili ahal izango ditu, betiere txosten horien aipamena egiten duen bakoitzean iturria eta jabetza norena den aipatuta.

Inkestak egitetik lortutako datuei dagokienez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarena da, halaber, haien jabetza. EHUK ere erabili ahal izango du informazio hori ikerketak egiteko, betiere datu horien aipamena egiten duen bakoitzean iturria eta jabetza norena den aipatuta.

EHUK, bestalde, aukera emango dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari hitzarmen honen esparruan egindako ikerketa-azterketen ondorioz egiten dituen txosten, ikerketa eta dokumentu-funtsak eskura edukitzeko, behin haiek guztiak argitaratu ondoren.

Bosgarrena.– Izaera pertsonaleko datuen tratamendua.

1.– Hona hemen izaera pertsonaleko datuak babesteko aplikatuko den araubidea: Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2016ko apirilaren 27an onartutako 2016/679 Erregelamendua (EB), datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, bai eta hura garatzeko onartzen den araudia ere.

2.– EHU da «Espediente akademikoak» gaitzat duen ororen tratamendu-jardueraren arduradun, eta unibertsitateak eskaintzen dituen jarduera eta zerbitzuekin zerikusia duten edukiak zein datu pertsonalak hartzen ditu barnean. EHUK Tratamendu Jardueren Erregistroan jasoko ditu Lanbideri egindako datu-lagatzeak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua da, bestalde, «Lanbideren Inkestak» gaitzat duen ororen tratamendu-jardueraren arduradun, honako hau xede izanik: 1) Unibertsitateko kolektiboaren aktibazioari eta laneratzeari buruzko ikerketa soziologikoak eta estatistikak egitea. 2) Lanbideko zenbait organok enplegua sustatzeko ekintzak eta prospekzio-jarduerak egitea, erakunde autonomo honi esleitutako eskumenak baliatuz. Fitxategi horretan, inkestatutako pertsonen galdetegietan emandako erantzunak jasoko ditu Lanbidek. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 30. artikulua xedatutakoa betez, Lanbidek tratamendu-jardueren erregistroan bilduko ditu jarduera horri buruzko datuak.

EHUK «Espediente akademikoen» alorreko tratamendu-jardueraren eduki jakin batzuk (datu pertsonal jakin batzuk) lagako dizkio Lanbideri, eta datu horiei esker jarriko da harremanetan Lanbide pertsona horiekin, inkesta egiteko.

Lanbidek, halaber, «Lanbideren Inkestak» alorreko tratamendu-jardueraren eduki jakin batzuk (EHUK hasieran lagatutako datu pertsonalak eta inkestako hainbat galderen erantzunak, bi aldeek aurretiaz adostutakoak) lagako dizkio EHUri, eta eduki horien bidez, EHUK zenbait adierazle lortuko ditu bere helburuetarako, eta bere interesen arabera erabili ahalko ditu.

Horrez gain, dokumentu-sorrerarekin eta dokumentu horien baterako zein partaidetzako hedapenarekin zerikusia duten alderdiak ere jaso nahi ditu hitzarmen honek. Horretarako, printzipio hauek hartu dira oinarri: lortutako emaitzak murrizketarik gabe partekatu eta hedapen-estrategia koordinatuen bidez hedatu.

Datu-lagapen horiek datu-euskarrien sarrera eta irteera egiteko baimenaren bidez antolatuko dira, eta baimen hori datu-truke bakoitzeko sinatu beharko dute parte hartzen duten bi aldeek (hitzarmen honetako I. eranskinean dago jasota dokumentua).

3.– Bi aldeek honako konpromiso hauek hartzen dituzte bere gain, izaera pertsonaleko datuak babestearen alorrean indarrean dagoen araudiaren arabera:

a) Datu pertsonalak tratatzean, kasuan kasu adierazitako argibideen arabera tratatuko dituzte datuak; argibide horiek norik bere erakundean ezarri beharreko xede, erabilera eta neurri tekniko zein antolakuntzari buruzkoak izango dira.

b) Datuak ez dira ezein kasutan aplikatuko edo erabiliko hitzarmen honetan adierazi ez den beste inolako helburuetarako.

c) Ez zaizkie ezein egoeretan jakinaraziko datu pertsonalak beste pertsona batzuei, non eta dagokion tratamenduaren arduradunak berariaz adierazten ez duen hala egiteko.

d) Ez da inola ere izaera pertsonaleko daturik erregistratuko, baldin eta hautemandako arriskuaren araberrako segurtasun-baldintza tekniko egokiak betetzen ez baditu tratamendu-jarduerak, eta ez baditu datuak eskuratu, aldatu, galdu edo baimenik gabe hedatzearen aurka babesteko beharrezko baldintzak betetzen.

e) Aurretiaz baimenik eduki gabe datu pertsonalak beste xede batekin erabiltzen badira edo hitzarmenean adostu eta jasotakoa bete gabe komunikatu edo erabiltzen badira, tratamenduaren erantzuletzat ere hartuko dira hori egiten dutenak, eta pertsonalki erantzungo dute egin dituen arau-hausteen gainean.

f) Bi aldeek konpromisoa hartzen dute Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoak betetzeko, eta, bereziki, honako arau hauek betetzeko:

I.– 6. artikulua. Tratamenduaren zilegitasuna: tratamendua ezinbestez egongo da Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutako oinarri juridikoren baten bidez legitimatuta.

II.– 13. artikulua. Informatzeko eskubidea: datuak lortzen diren unean, bi aldeek Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean 13. artikuluan adierazitako informazio guztia eskuratuko diete egrasatuei.

g) Inkesta egitean ikasleren batek adierazten badu EHUK Lanbideri lagatako datuen tratamenduaren aurkako eskubidea baliatu nahi duela, Lanbidek amaitutzat emango du datuen tratamendua.

4.– Bi aldeek ziurtatuko dute izaera pertsonaleko datuei aplikatuko zaizkien segurtasun-neurri teknikoak eta antolakuntzakoak egokiak direla hautemandako arriskurako (hitzarmen honetako II. eranskinean adierazita daude neurriak).

5.– Bi aldeek eskatu ahal izango dituzte datuen babesaren alorreko xedapenak betetzen direlako ebidentziak.

2018ko urriaren 30a, asteartea

Seigarrena.– Jarraipen-batzordea.

Hitzarmen hau behar bezala betearazten dela koordinatzeko eta bermatzeko, Jarraipen Batzorde Misto bat eratuko da, eta lau kide izango ditu: bi kide Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ordezkari izango dira, eta beste bi Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkari.

Batzordearen mahaiburutza urtean behin aldatuko da, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak izango du lehenbiziko urtean.

Batzordea aldeetako edozeinek eskatzen duenean elkartuko da, eta gutxienez urtean behin, egindako lankidetzaren emaitzak eta gertaerak edo intzidentziak aztertzeko.

Zazpigarrena.– Hitzarmenaren suntsiarazpena.

Hauek izango dira hitzarmen honi amaiera emateko arrazoiak:

- Bi aldeek hala adostea.
- Hitzarmenaren indarraldia amaitzea, eta hura luzatzeko erabakirik ez hartzea.
- Hitzarmenaren sinatzaileetakoren batek ez betetzea bere gain hartutako betebeharrak.

Kasu horretan, aldeetako edozeinek eskaera bidali ahalko dio hitzarmena bete ez duen aldeari, epe jakin batean bete ditzan bete gabekotzat jo diren betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu edo eskaera hori hitzarmena gauzatzeko jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoaren arduradunari eta gainerako alderdi sinatzaileei komunikatuko zaie.

Errekerimendu edo eskaeran adierazitako epea igarotakoan, ez-betetzeak jarraitzen badu, hura bidali zuen aldeak sinatzaileei jakinaraziko die hitzarmena suntsiarazteko arrazoi bat dagoela, eta, beraz, suntsituzat joko da hitzarmena.

- Indarreko legerian ezarritako gainerako arrazoiak.

Suntsiarazpena edo hutsalketa gertatuz gero, aldeek kontratua suntsiarazi aurretik beste aldearen eta hirugarrenen aurrean beren gain hartutako betebeharrak bete beharko dituzte.

Zortzigarrena.– Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmen honek 4 urteko indarraldia izango du, sinatzen den egunetik hasita.

Indarraldia amaitu aurreko edozein unetan, aldeek aho batez adostu ahalko dute hura urtebetez luzatzea -gehienez beste lau urtez- edo hura azkentzea.

Azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, aldeek hitzarmen honen lau ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko lehendakaria,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.

UPV/EHUko errektorea,
NEKANE BALLUERKA LASA.

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluko lehendakaria,
JOSEBA AGUSTÍN EIZAGUIRRE AGOTE.

2018ko urriaren 30a, asteartea

HITZARMENAREN I. ERANSKINA

BAIMENA, EHU-K ETA LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK ELKARRI LAGATAKO DATU PERTSONALAK DITUZTEN EUSKARRIAK JASOTZEKO EDO BIDALTZEKO DENA

– Datuak, EHU-k euskarriak igortzeko edo jasotzeko baimenari buruzkoak.

EHUK baimendu duen pertsona: Txelo Ruiz Vazquez andrea.

Kargua: Ikasleen eta Enplegarritasunaren Arloko errektoreordea.

Lanbidek baimendu duen pertsona: María Leonor Jalón andrea.

Kargua: Kabinete Teknikoaren teknikaria.

– Tratamendu-jarduerari buruzko datuak.

Izena: espediente akademikoak.

Arduraduna: EHU.

Erabilerak eta xedeak: Espediente akademikoak kudeatzea.

Segurtasun-maila: oinarrizkoa.

– Lagapenari buruzko datuak.

Erakunde lagapen-hartzailea: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.

Xedea: Ikasketak EHUn amaitu dituzten ikasleen datu-basea jasotzea, xede izanik: 1) Unibertsitateko kolektiboaren aktibazioari eta laneratzeari buruzko ikerketa soziologikoak eta estatistikak egitea. 2) Lanbideko zenbait organok enplegua sustatzeko ekintzak eta prospekzio-jarduerak egitea, erakunde autonomo honi esleitutako eskumenak baliatuz.

Euskarri-mota: elektronikoa (e-maila).

Datu-mota: datu identifikagarriak eta akademikoak.

Igortzeko modua: posta elektronikoa, EHUK propio horretarako baimendutako pertsonak.

Hartzailea: Lanbidek baimendu duen pertsona.

Entrega-eguna: 2018ko abuztuaren 18a.

Kabinete Teknikoaren zerbitzuaren arduraduna,
JAVIER RAMOS SALAZAR.

Ikasleen eta Enplegarritasunaren Arloko errektoreordea,
TXELO RUIZ VAZQUEZ.

– Datuak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak euskarriak igortzeko edo jasotzeko baimenari buruzkoak.

Lanbidek baimendu duen pertsona: Javier Ramos Salazar jauna.

Kargua: Kabinete Teknikoaren zerbitzuaren arduraduna.

EHUK baimendu duen pertsona: Xabier Txopitea Zugadi jauna.

2018ko urriaren 30a, asteartea

Kargua: enplegu-guneetako teknikaria.

– Tratamendu-jarduerari buruzko datuak.

Izena: Lanbideren inkestak.

Arduraduna: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.

Egitekoaren arduraduna: Kabinete Teknikoaren Zerbitzuko arduraduna.

Erabilerak eta xedeak: 1) Unibertsitateko kolektiboaren aktibazioari eta laneratzeari buruzko ikerketa soziologikoak eta estatistikak egitea. 2) Lanbideko zenbait organok enplegua sustatzeko ekintzak eta prospekzio-jarduerak egitea, erakunde autonomo honi esleitutako eskumenak baliatuz.

Segurtasun-maila: oinarrizkoa.

– Lagapenari buruzko datuak.

Erakunde lagapen-hartzailea: EHU.

Xedea: Unibertsitatearen berezko xedeak.

Datu-mota: 2015eko Promozioko egresatuen laneratze datuak eta irakaskuntzaren kalitatearen balorazioa.

Igortzeko modua: posta elektronikoa, LANBIDEK propio horretarako baimendutako pertsonak.

Hartzailea: EHUK baimendu duen pertsona.

Entrega-eguna: 2019ko 4. Hiruhilekoa.

Kabinete Teknikoaren zerbitzuaren arduraduna,
JAVIER RAMOS SALAZAR.

Ikasleen eta Enplegagarritasunaren Arloko errektoreordea,
TXELO RUIZ VAZQUEZ.

HITZARMENAREN II. ERANSKINA

EZARRIKO DIREN SEGURTASUN-NEURRIAK

Segurtasun-maila: Oinarrizkoa.

Segurtasun-araudia sortu eta ezarriko da agiri baten bidez, izaera pertsonaleko datu automatizatuak eta informazio-sistemak atzitzeko modua duten langile guztiek nahitaez bete dezaten. Agiri horrek, gutxienez, honako argibide hauek bilduko ditu bere baitan:

Segurtasun-agiria:

Aplikazio-eremua.

Segurtasun-neurriak, -arauak, -prozedurak, -jarraibideak eta -estandarrik.

Langileen funtzioak eta betebeharrak.

Fitxategien eta informazio-sistemen egitura eta deskripzioa.

Intzidentziei buruzko jakinarazpen-, kudeaketa- eta erantzun-prozedura.

Datuei buruzko babes- eta berreskurapen-kopirik egiteko prozedurak.

Langileak:

Funtzioak eta betebeharrak argi eta garbi zehaztu eta dokumentatuta.

Langileei jakinaraziko zaie zer arauk eragiten dieten eta zer ondorio dituen arau horiek ez betetzeak.

Intzidentziak:

Intzidentzia nolakoa izan den eta noiz gertatu den erregistratuko da.

Jakinarazpena nork egin duen, jakinarazpena nori egin zaion, eta intzidentziaren ondorioak.

Identifikazioa eta autentifikazioa:

Erabiltzaileen eta sarbide baimenduen zerrenda eguneratua.

Identifikazio- eta autentifikazio-prozedurak.

Sarbide-irizpideak.

Pasahitzak emateko eta kudeatzeko prozedurak, eta pasahitzak aldatzeko maiztasuna.

Inork ez ulertzeko moduan jasoko dira aktibo dauden pasahitzak.

Sarbide-kontrola:

Erabiltzaile bakoitza bere eginkizunak garatzeko beharrezko datu eta baliabideetan bakarrik sartuko da.

Erabiltzaile batek baimenduta dituen bestelako daturik edo baliabiderik erabiltzeko modurik ez izateko mekanismoak.

Baimenduta dauden langileek soilik emango dituzte sartzeko baimenak.

Euskarrien kudeaketa:

Biltzen duten informazio-mota identifikatuko da.

Inbentarioa.

Datuak biltegitratzea eta sarbidea murriztuko da.

Fitxategiaren arduradunak baimendutako euskarri-irteera.

Babes-kopiak:

Babes- eta berreskurapen-kopiak egiteko prozedurak ondo definituta dauden eta aplikatzen diren ziurtatuko da.

Datuak galdu edo suntsitu aurre-aurreko unean zeuden bezala berreskuratuko direla bermatuko da.

Babes-kopia, gutxienez astean behin.